

BEZEROEKIKO HARREMANAK

WasteHero-k bezero berriak erakartzeko web-aplikazio bat eta autozerbitzu sistema bat erabiltzen ditu, non edukiontzien kokapena eta birziklapen estatistikak ikus daitezkeen, eta puntu eta sari sistemaren bidez motibazioa handitzen den. Horrez gain, marketing digitala eta komunitate-kanpainak abian jartzen dira, auzoen eta eskolen arteko lehiaketak antolatuz bezero berriak erakartzeko.

Bezeroak mantentzeko, laguntza pertsonalizatua eskaintzen da zalantzak argitzeko eta arazo teknikoak konpontzeko, eta IoT sistemaren bidez edukiontzien egoera denbora errealean jarraitzen da. Halaber, harpidetzak eta salmenta ondorengo zerbitzuak eskainiko dira, edukiontzien mantentzea eta software eguneraketak barne, bezeroen konpromisoa eta fidelizazioa sendotuz.

WasteHero-k harreman misto bat ezartzen du: automatizatua (web-aplikazioa eta datuen jarraipena), pertsonala (laguntza zuzena) eta komunitatean oinarritua (lehiaketak eta baterako sorkuntza). Horrela, bezeroekiko harremana iraunkorra, motibatzailea eta erabilgarria bihurtzen da, eta negozio-ereduan modu naturalean integratzen da.